

ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo
merkataritza, enplegua eta
soldatak

HILEKO TXOSTENA

> 2020ko urria

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisisa batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.


EZAUGARRI NAGUSIAK

- Gipuzkoako enpresen salmentak %13,3 jaitsi dira 2020ko lehen hamar hilabeteetan. Bere bi osagaiek ere portaera negatiboa izan dute: barruko salmentak %11,4 jaitsi dira eta esportazioak %16,9.
- Datu metatu horietan nabaria izaten jarraitzen ari da nahitaezko konfinamenduari eta alarma egoerari lotutako neurriek izan duten eragina mugikortasunaren eta jardueraren gainean. Hilabete hauetan salmenta osoen bilakaera izan da: beherakada txiki bat martxoan, gehienezko jaitsierak apirila eta maiatzean (-%32,9 eta -%25,3, hurrenez hurren), eta hortik aurrera hilabete gehienetan %10eko inguruko jaitsierak mantentzen dira. Bilakaera horretan, barruko salmenten jaitsiera esportazioena baino txikiagoa ari da izaten.
- Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren jaitsiera ez da salmenten bezain bortitza izan; halere, datuak baldintzatuta daude bai ERTEen eraginagatik eta baita kalkulatzeko metodologia beragatik ere. Urrian, Gipuzkoako enpresetan lan egiten duten pertsona kopurua %2,5 jaitsi da, eta urteko metatua %2,3. Ordaindutako soldatak %2,6 jaitsi dira urrian, eta %3,8 urteko metatua.

1. taula - GIPUZKOA ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Urria	Δ% Urtarrila-Urria
Salmenta osoak	-12,0	-13,3
Barruko salmentak	-10,7	-11,4
Esportazioak	-14,3	-16,9
Inportazioak	-10,0	-16,5
Enplegua	-2,5	-2,3
Soldatak	-2,6	-3,8

1. grafikoa - SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

➤ 2020ko lehen hamar hilabeteetan salmenta osoak sektore guztietan jaitsi dira

Jarduera ekonomikoa aurrera eramateko ezarritako mugek eta ekonomiaren bilakaerari buruz dagoen ziurgabetasunak, salmenten jaitsiera nabarmena ekarri dute sektore guztietan.

Horrela, industriaren sektorea izan da jardueraren gelditzea gehien jasan duena: salmentak %17,2 jaitsi dira urteko metatutan. Urrian jaitsiera %16,1ekoa izan da. Nahiz eta datu oso txarra izan, urteko II. hiruhilekoan izandako -%27,2aren erdia baino zertxobait gehiago da.


Eraikuntza sektoreko salmentak %8,5 jaitsi dira urrian eta %14,7 urteko metatutan. Kasu honetan ere bariazioak bigarren hiruhileko -%19,8a baino hobeak dira.

Urte osoan zehar salmenten jaitsierarik apalena zerbitzu sektorean eman da (-%7,6). Alarma egoera indar handienera egon zen epealdian, jardueraren datu txikiak eman ziren: apirilean salmentak %28,1 jaitsi ziren eta maiatzean %20,2. Hortik aurrera beherakadak askoz txikiagoak izan dira: -%5,5 ekainean, -%4,4 uztailan eta -%8,5 abuztuan. Irailean, lehen aldiz krisi hau hasi zenetik salmentak, gutxi bada ere, +%0,5 handitu ziren. Baina, orain, urrian berriro jaitsi dira: -%6,4.

2. taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	$\Delta\%$ Urria	$\Delta\%$ Urtarrila-Urria
Salmenta osoak	-12,0	-13,3
▪ Industria	-16,1	-17,2
▪ Eraikuntza	-8,5	-14,7
▪ Zerbitzuak	-6,4	-7,6

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

- Gipuzkoako enpresen esportazioak %16,9 jaitsi dira 2020ko lehen hamar hilabeteetan

Dudarik gabe, osasun krisi honek eragina izan du mundu mailako merkataritzan. Herrialde gehienetan eman den jardura ekonomikoaren gelditzeak, ondorioak izan ditu hornikuntza eta ekoizpen kateetan. Urteko lehen hamar hilabeteetan Gipuzkoako enpresen esportazioak %16,9 jaitsi dira. Esportazioen noranzkoa begiratuta, Europar Batasunera egindako salmentak portaera zertxobait hobea erakusten dute, -%16,1 jaitsi baitira, Europar Batasunetik kanpora zuzendutakoen -%18,2aren aldean.

Kanpoko salmentetan ere beherakada handienak apirila eta maiatzean eman ziren (-%39,5 eta -%30,4, hurrenez hurren). Hortik aurrera, hilero %10 eta %15eko tarteko jaitsierak eman dira.

Inportazioei dagokionez, %16,5eko jaitsiera izan dute hamar hilabete hauetan, eta egindako erosketa horien jatorria begiratuz gero, esportazioen alderantzizko portaera ikusten da: EBtik egindako erosketen jaitsiera EBtik kanpo egindakoena baino handiagoa izan da (-%17,6 eta -%13,2, hurrenez hurren).

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Urria	Δ% Urtarrila-Urria
Esportazioak	-14,3	-16,9
▪ Europar Batasuna	-12,8	-16,1
▪ Munduko gainerako herrialdeak	-17,0	-18,2
Inportazioak	-10,0	-16,5
▪ Europar Batasuna	-8,2	-17,6
▪ Munduko gainerako herrialdeak	-16,1	-13,2

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- 2020ko lehen hamar hilabeteetan Gipuzkoako enpresetan lan egiten duen langile kopurua %2,3 jaitsi da

Nahiz eta salmentak modu nabarmenean jaitsi, lan etekinak jasotzen dituzten pertsona kopuruan izan duen eragina askoz txikiagoa izan da. Bilakaera hobeagoa horretan, agian eragina izan dute: alde batetik, soldatapeko langileria aurreikusteko erabiltzen den zerga adierazle honen kuantifikazio moduak bera; izan ere, kontuan hartzen da hilabeteen zehar lan etekinak jaso dituzten pertsona kopurua, nahiz eta egun bakar bategatik izan. Eta beste alde batetik, posible da ERTE egoeran dagoen langile batek, soldataren zati bat bere enpresaren bidez jasotzea, eta orduan ere bertako langile bezala hartzen da. Horregatik, litekeena da, datu hauek ez jasotzea modu egokian krisi honen eragina enpleguan.


Horrela, Gipuzkoako enpresetan lan egiten duen langile kopurua %2,5 jaitsi da urrian. Kasu honetan ere jaitsierarik handienak apirilean (-%5,6), maiatzean (-%4,9) edo ekainean (%4,5) eman ziren. Hortik aurrera jaitsierak leuntzen joan dira. Urteko metatutan langile kopuruaren jaitsiera txikiagoa izan da (-%2,3), gehienbat, lehen hiruhilekoan izandako portaera onari esker (+%2,2).

Datu metatuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da langile kopuruaren jaitsierarik txikiena industrian eman dela (-%1,8), eta modu nabarmenagoan eraikuntzan (-%4,5) eta zerbitzuetan (-%2,8).

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Urria	Δ% Urtarrila-Urria
Enplegu osoa	-2,5	-2,3
▪ Industria	-3,2	-1,8
▪ Eraikuntza	-6,9	-4,5
▪ Zerbitzuak	-1,4	-2,8

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

- Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak %3,8 jaitsi dira 2020ko lehen hamar hilabeteetan

Soldatek ere portaera negatiboa izan dute hamar hilabete hauetan, eta gainera, enplegua baino txarragoa. Bilakaera okerrago horren arrazoiak lehen aipatutakoak izan daitezke: langileak neurtzeko metodoagatik, horien jaitsiera soldatena baino txikiagoa izatea. Esaterako, langile bat ERTEan sartzen bada eta bere soldataren erdia enpresak ordaintzen badu, langile hori bere osotasunean konputatzen da, eta soldata erdia bakarrik.

Horrela, Gipuzkoako enpresak ordaindutako soldatak %2,6 jaitsi dira urrian, eta datu metatuetan, urteko lehen hamar hilabeteetan, %3,8. Sektoreka, bilakaera negatiboa erakusten dute guztiek: industria (-%4,2), eraikuntza (-%3,8) eta zerbitzuak (-%3,1).


2020ko lehen hamar hilabeteetan enplegua %2,3 jaitsi da eta soldatak %3,8 jaitsi; ondorioz langile bakoitzeko batez besteko ordainsaria %1,5 jaitsi da. Industrian enplegua %1,8 jaitsi da eta soldatak neurri handiagoan (-%4,2), eta ondorioz, batez besteko soldata %2,4 jaitsi da. Aldiz, eraikuntzan enplegua (-%4,5) soldatak (-%3,8) baino gehiago jaitsi da, eta, beraz, batez besteko soldata %0,7 handitu da. Zerbitzuen sektorean enplegua %2,8 jaitsi da eta soldatak %3,1; ondorioz, batez besteko soldata %0,3 jaitsi da.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Urria	Δ% Urtarrila-Urria
Soldata osoak	-2,6	-3,8
▪ Industria	-3,7	-4,2
▪ Eraikuntza	-6,7	-3,8
▪ Zerbitzuak	-0,1	-3,1

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.

1 taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESPORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2019 (1)	3,9	2,1	7,4
2020 (1)	-13,3	-11,4	-16,9
2018 I	3,7	5,1	1,2
II	7,0	6,5	7,8
III	7,7	9,3	4,8
IV	7,6	2,9	16,0
2019 I	4,3	2,2	8,6
II	4,4	2,0	8,8
III	2,8	1,7	4,8
IV	0,3	4,0	-6,0
2020 I	-7,1	-6,0	-9,0
II	-23,1	-20,5	-27,8
III	-9,6	-7,5	-13,7
2019 urtarrila	2,2	-5,4	20,0
otsaila	8,3	5,4	14,1
martxoa	2,9	7,4	-4,4
apirila	6,1	3,4	11,2
maiatza	3,2	2,3	4,8
ekaina	4,0	0,5	10,7
uztaila	1,2	1,4	0,7
abuztua	-1,1	-1,8	0,6
iraila	7,5	4,9	12,7
urria	4,6	3,3	7,0
azaroa	-4,9	-5,7	-3,6
abendua	1,0	13,3	-18,2
2020 urtarrila	-9,9	-6,0	-17,3
otsaila	-1,6	0,2	-5,2
martxoa	-9,4	-11,9	-4,7
apirila	-32,9	-29,4	-39,5
maiatza	-25,3	-22,5	-30,4
ekaina	-11,5	-9,8	-14,5
uztaila	-9,1	-5,8	-15,5
abuztua	-10,6	-9,4	-13,0
iraila	-9,5	-8,0	-12,3
urria	-12,0	-10,7	-14,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2016	0,4	-0,7	-5,4	2,9
2017	7,5	6,3	5,1	9,6
2018	6,6	6,5	0,7	7,4
2019	2,8	2,6	-2,0	4,0
2019 (1)	3,9	4,9	0,8	3,0
2020 (1)	-13,3	-17,2	-14,7	-7,6
2018 I	3,7	2,5	-12,9	7,5
II	7,0	6,7	2,6	7,9
III	7,7	6,1	12,0	9,5
IV	7,6	10,1	0,6	5,0
2019 I	4,3	6,3	-6,2	3,3
II	4,4	5,3	19,0	1,2
III	2,8	2,1	-3,7	4,8
IV	0,3	-2,5	-11,8	6,4
2020 I	-7,1	-10,5	-14,6	-1,1
II	-23,1	-27,2	-19,8	-17,8
III	-9,6	-13,8	-11,4	-4,0
2019 urtarrila	2,2	12,8	-37,3	-1,6
otsaila	8,3	8,4	12,8	7,7
martxoa	2,9	-1,1	44,1	4,3
apirila	6,1	5,7	30,9	3,3
maiatza	3,2	3,0	5,4	3,1
ekaina	4,0	7,3	21,5	-2,6
uztaila	1,2	-2,0	1,0	5,8
abuztua	-1,1	-2,4	-31,6	6,8
iraila	7,5	9,7	22,1	2,1
urria	4,6	7,6	-9,5	2,6
azaroa	-4,9	-5,1	-30,8	0,6
abendua	1,0	-8,9	6,0	14,8
2020 urtarrila	-9,9	-17,2	-24,2	3,1
otsaila	-1,6	-4,7	4,5	1,7
martxoa	-9,4	-9,3	-21,1	-7,6
apirila	-32,9	-36,3	-33,7	-28,1
maiatza	-25,3	-29,9	-16,7	-20,2
ekaina	-11,5	-16,0	-8,5	-5,5
uztaila	-9,1	-13,4	-2,3	-4,4
abuztua	-10,6	-15,0	8,6	-8,5
iraila	-9,5	-13,4	-31,3	0,5
urria	-12,0	-16,1	-8,5	-6,4

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	BESTEAK	Guztira	EB	BESTEAK
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2019 (1)	7,4	9,2	4,3	4,7	3,0	10,6
2020 (1)	-16,9	-16,1	-18,2	-16,5	-17,6	-13,2
2018 I	1,2	8,6	-9,8	12,0	11,8	13,0
II	7,8	11,5	2,3	17,6	15,1	27,5
III	4,8	18,8	-13,5	11,0	8,9	18,8
IV	16,0	28,9	-1,2	2,5	-0,6	15,1
2019 I	8,6	12,8	1,6	11,1	8,5	21,7
II	8,8	11,9	3,7	1,3	0,8	2,9
III	4,8	5,2	4,3	1,5	-1,5	11,6
IV	-6,0	-7,8	-2,7	-1,3	-3,0	4,7
2020 I	-9,0	-9,6	-7,9	-10,2	-11,3	-6,1
II	-27,8	-26,3	-30,5	-27,2	-29,4	-19,8
III	-13,7	-12,8	-15,2	-14,1	-14,7	-12,2
2019 urtarrila	20,0	21,5	17,2	17,4	11,2	40,0
otsaila	14,1	10,2	21,4	11,2	11,0	12,2
martxoa	-4,4	7,4	-19,6	5,4	4,0	12,1
apirila	11,2	15,8	3,0	-3,4	-3,3	-3,8
maiatza	4,8	11,6	-5,5	4,3	4,3	4,2
ekaina	10,7	8,5	14,2	2,6	1,1	8,1
uztaila	0,7	-7,7	18,3	3,1	0,2	12,9
abuztua	0,6	7,5	-9,4	-2,3	-7,9	18,2
iraila	12,7	18,6	1,9	2,9	2,0	5,8
urria	7,0	3,5	13,5	6,0	6,6	3,9
azaroa	-3,6	1,0	-12,0	-10,3	-11,2	-7,5
abendua	-18,2	-25,0	-7,2	1,0	-4,0	20,0
2020 urtarrila	-17,3	-16,6	-18,7	-9,1	-9,7	-7,2
otsaila	-5,2	-7,1	-1,7	-6,9	-9,9	4,4
martxoa	-4,7	-4,9	-4,4	-14,4	-14,1	-15,4
apirila	-39,5	-45,0	-28,3	-27,3	-29,8	-18,8
maiatza	-30,4	-31,7	-28,2	-33,4	-37,3	-20,3
ekaina	-14,5	-1,7	-34,3	-20,5	-20,6	-20,2
uztaila	-15,5	-10,1	-24,0	-16,9	-16,6	-17,8
abuztua	-13,0	-18,3	-3,9	-17,9	-20,7	-8,8
iraila	-12,3	-11,7	-13,6	-8,7	-8,5	-9,3
urria	-14,3	-12,8	-17,0	-10,0	-8,2	-16,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2016	2,8	1,7	-7,9	5,5
2017	2,6	2,6	-3,6	3,1
2018	3,6	3,0	3,1	4,5
2019	2,2	2,0	1,2	2,6
2019 (1)	2,4	2,1	1,5	2,8
2020 (1)	-2,3	-1,8	-4,5	-2,8
2018 I	4,2	3,4	0,3	5,5
II	4,6	4,0	3,5	5,5
III	3,1	2,8	4,8	3,4
IV	2,7	1,8	3,9	3,8
2019 I	2,3	1,8	4,1	2,8
II	2,2	1,8	-0,2	2,8
III	2,8	2,6	0,9	3,1
IV	1,7	1,7	-0,1	1,8
2020 I	2,2	2,0	-4,0	2,8
II	-5,0	-2,7	-4,0	-8,0
III	-3,9	-4,1	-4,6	-3,5
2019 urtarrila	2,6	1,7	4,0	3,5
otsaila	2,3	1,8	3,8	2,8
martxoa	2,0	1,9	4,4	2,1
apirila	2,2	1,8	-1,9	2,9
maiatza	2,0	1,8	-0,8	2,6
ekaina	2,3	1,9	2,2	2,8
uztaila	3,3	3,8	0,9	2,7
abuztua	2,1	1,3	1,0	3,2
iraila	3,0	2,8	0,9	3,3
urria	1,9	1,7	0,7	2,2
azaroa	1,5	1,7	0,2	1,4
abendua	1,6	1,7	-1,3	1,7
2020 urtarrila	2,8	2,6	-0,5	3,2
otsaila	1,9	1,8	-7,6	2,8
martxoa	1,9	1,6	-3,7	2,5
apirila	-5,6	-0,7	-5,6	-11,6
maiatza	-4,9	-3,0	-1,2	-7,5
ekaina	-4,5	-4,2	-5,1	-4,8
uztaila	-3,8	-3,8	-4,1	-3,9
abuztua	-4,1	-4,4	-5,6	-3,7
iraila	-3,6	-4,3	-4,1	-2,8
urria	-2,5	-3,2	-6,9	-1,4

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2016	2,5	1,9	-8,8	5,2
2017	4,1	4,2	-5,1	4,6
2018	4,6	4,1	6,4	5,3
2019	3,7	3,0	3,7	5,1
2019 (1)	3,9	3,1	4,5	5,4
2020 (1)	-3,8	-4,2	-3,8	-3,1
2018 I	4,7	4,5	7,0	4,9
II	5,9	6,6	2,5	5,0
III	4,6	4,0	8,1	5,7
IV	3,4	2,2	8,0	5,6
2019 I	2,9	1,9	3,5	4,8
II	4,5	2,6	10,4	7,6
III	4,3	4,5	0,3	4,2
IV	3,2	2,8	1,0	4,2
2020 I	2,4	1,6	-1,5	4,2
II	-9,3	-8,4	-6,8	-11,2
III	-4,4	-5,4	-1,9	-2,7
2019 urtarrila	2,0	1,0	2,7	3,9
otsaila	3,5	1,8	13,3	6,0
martxoa	3,1	2,7	-2,8	4,4
apirila	4,1	2,2	-1,8	8,1
maiatza	5,3	4,1	6,8	7,3
ekaina	4,3	1,5	22,7	7,5
uztaila	4,4	5,3	1,3	2,8
abuztua	4,4	4,2	-5,2	5,5
iraila	4,0	3,5	4,5	4,9
urria	3,6	3,0	2,5	4,7
azaroa	3,7	3,8	-0,4	4,0
abendua	2,7	2,1	0,8	4,0
2020 urtarrila	2,9	2,0	3,5	4,6
otsaila	4,5	2,6	-1,8	8,6
martxoa	-0,1	0,2	-5,1	-0,1
apirila	-9,1	-6,3	-6,4	-14,4
maiatza	-11,1	-10,8	2,7	-12,9
ekaina	-8,0	-8,1	-13,2	-7,2
uztaila	-5,7	-6,7	-5,4	-3,4
abuztua	-4,2	-5,1	4,6	-3,3
iraila	-2,6	-3,3	-3,2	-1,1
urria	-2,6	-3,7	-6,7	-0,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan